



Bidasoa-Txingudi
Mugaz-gaindiko
Partzuergoa

IRUN ⇄ HONDARRIBIA ⇄ HENDAYE

www.irunhondarribiahendaye.com



NATURAN BARRENA IBILALDIAK EGITEA FAMILIAN

TXINGUDI BADIako NATUR EREMUA



Txingudiko badia balio handiko ur-eremua da, kokapen geografikoagatik, ezin hobea baita hegazti migratzaileek merezi duten atsedena har dezaten urtero Europako iparraldetik hegoaldera egiten dituzten bidaietan. Mundu-mailako erakunde handiek, hala nola RAMSAR Hitzarmenak edo Natura 2000 Europako Sareak, beren babes-planetan sartu dituzte bertako hezegune gehienak. Oso leku aproposa da mugaz gaindiko ingurunean naturan barrena ibilaldi ederrak egiteko familian.

Irungo **Plaiaundiko Parke Ekologikoa** Babes Bereziko Eremu bat da, eta 23,4 ha ditu. Babesleku garrantzitsua da, eta bertan, 250 hegazti-espezie baino gehiago ere ikusi dituzte, eta baita anfibio- eta arrain-espezie asko ere, horietako batzuk endemikoak. Paseatzeko eta behatzeko egokiak diren ekipamendu guztiak ditu, eta dorre eta etxolak, bi kilometrotan zehar bidexketan banatuta.

Hondarribirantz jarraituz, **Jaizubiako padurak** daude. 70,4 hektarea babestu dira, eta horietatik 38,1 babes berezikoak dira, eta gainerakoak, nekazaritza-babeseakoak. Hiru kilometro ditu bidezidorretan, eta horietan barrena, Aingiraportuko informazio gune bat topatuko dugu, eta baita bunker zahar baten gainean dagoen begiratoki bat ere, ibaitik itsasoraino naturaz lotzen diren Gipuzkoako lezkadi zabalenen artean.

Badiako mugako lerroa ibai-ontzi batekin zeharkatzen badugu, Hendaiako **Belceniako berdegunera** iritsiko gara laster. Garai batean, hezeguneak ziren, eta gaur egun, aisialdirako gune izateko egokituta daude, eta azpiegitura ugari dituzte gazteen gozamenarako. Sokobururantz doan ibilbide zabaletik, Txorien Uharteko lokatzak ikus daitezke dorre batetik. Leku pribilegiatua da hegaztien atsedenerako, eta horregatik izena du horrela uharteak, eta Natura 2000 Sareak babesten duen gune bat da.

ERRAZ IRISTEKO MODUKO BESTE BIDE BERDE BATZUK



Mugaz gaindiko badiaz gain, badira interes natural bereziko beste eremu batzuk ere, hiriguneetatik oinez edo bizikletaz erraz iristeko modukoak.

Irunen:

- ⇒ Artia eta Ibarla artean, Aiako Harria eta San Martzial mendien oinetan, bidexka ugari daude basoetan zailtasunik gabe sartzeko.
- ⇒ Oxinbiribil eta Behobia artean, Bidasoa ibaiaren ertzean, bizikletarientzako eta oinezkoentzako bidean asko goza dezakegu, ibai-uharteen edertasuna eta, bereziki, Faisaien uhartea ikusiz.
- ⇒ Zaisa eta Endarlatsa artean, Bidasoko bide berdean ibil gaitzke (Ederbidea). Garai bateko meatze-trenaren trenbidean barrena doa ibilbide berritu hori, eta ikuspegi zoragarriak eskaintzen ditu ibai aldera.

Hondarribian:

- ⇒ Arrantza-portuaren eta San Telmo gazteluaren artean, labarrean eta kai-morruko arroken gainean hausten diren olatuek nolako indarra duten ikus daiteke.
- ⇒ Puntalen eta Kai Zaharraren artean, Bidasoa ibaiko ur gezaren barealdiaz gozaten da. Ur hori Txingudiko badiako Kantauri itsasoko ur gaziekin nahasten da.
- ⇒ Amute-Kosta eta Arkolla artean, Jaizkibel mendiaren magalean barrena ibil gaitzke bidexketatik, bertako bitxiak ikusiz, hala nola Goiko Errota.

Hendaian:

- ⇒ Behobi eta Santiago artean, Bidasoa ibaiaren bazterra zeharkatzen duen bidezidorra dago, eta bertan, udalerriko auzo bati izena ematen dioten ihitokiak nabarmentzen dira.
- ⇒ Gaztelu Zahar eta Kaneta artean, pasabide bat dago ibaiaren gainetik pasatzen dena, eta handik, erdigunera igo gaitzke, gotorleku zaharraren aurrin eta kanoien artean.
- ⇒ Arroka Bikien eta Abbadia eremuaren artean, itsasertzeko ikuspegi ederrak goza ditzakegu, eta baita basoetako, landetako eta lorategietako fauna eta flora ere.

INFORMAZIO GEHIAGO

www.bidasoaturismo.com

www.hendaye-tourisme.fr

www.irun.org

www.hondarribia.eus

www.hendaye.fr